

# GUGGENHEIM BILBAO



**Harry Callahan** (1912–1999)

*Eguzkiaren isla uretan (Sunlight on Water)*, 1943

Zilar-gelatinazko kopia zaharra

8,3 x 11,1 cm

Hauen eskaintza: The Estate of Harry Callahan eta Pace/MacGill Gallery, New York

Harry Morey Callahan (Detroit, Michigan, AEB, 1912–Atlanta, Georgia, AEB, 1999) Ansel Adams-en argazkilaritza-lantegi batera joan zen 1949an eta txundituta geratu zen: Adamsek zuri-beltzeko paisaiak egiteko teknika bikaina zuen eta argazkilaritza bera arte-modu bat zelako uste osoa zuen [1]. Horren ondoren artista izatea erabaki zuen Callahanek eta adierazpidetzat argazkiak erabiltzea. Adamsek, halaber, helarazi zion ez zela beharrezkoa bidaian joatea inspirazioa biltzeko, are gure oinatzak ere interesgarriak izan daitezkeela. Horrela hasi zen Callahan xehetasunenetan, lehen planoetan eta inguruan zituen hiriko espazioetan arreta ipintzen eta argitasun eta iluntasun ñabardurak jasotzeari erreparatzen, ez soilik objektuak jasotzeari. Ia goizero, Callahan etxetik irten eta hiritik ibiltzen zen argazkiak ateratzen. Arratsaldeetan esperimentazio-saioak egiten zituen eguneko negatibo onenekin haren errebelatzeko gela ilunean. Gogokoen zituen gaiak hiriko kaleetako xehetasunak ziren: landareak, telefono-kableak, etxe orratzak... Gai bat aukeratzean askotariko moduetan

# GUGGENHEIM BILBAO

ateratzen zion argazkia eta behin eta berriro itzultzen zen hura lantzerantz. Callahanen lana eta bizitza estuki lotuta zeuden. Hamabost urtez emazte Eleanorri argazkiak atera zizkion, kokaleku eta testuinguru askotan: etxean, hiriko kaleetan, paisaian; bakarrik, alabarekin; zuri-beltzean, koloretan; biluzik, jantzita; gertutik, urrunetik. Haren eszenetan kameraren mugimendua eta argiztapen berezia ikus daitezke, baita marrak eta formak ere, argia eta iluntasuna, jasotzeko sen handia[2]. Argazki batzuk egiteko negatiboa argitan ipintzen zuen hainbat aldiz Callahanek; gainera, kamera mugitzen zuen argizko marrak eta formak sortzeko, harekin marraztuko balu bezala. Beste argazki batzuek muturreko kontrasteak dituzte: irudia ia osorik da zuria edo beltza; horren adibide dugu *Eguzkiaren isla uretan* (*Sunlight on Water*, 1943). Ia guztiz beltza da hondoa eta marra zuri batzuek baino ez dute uraren testura ikusten uzten. Ur lasaian islatzen diren eguzki-izpien islei argazkia ateratzean, irudi fina lortu zuen artistak, argazkilaritzaren eremutik harago joan eta pinturaren eta marrazketaren eremura hurbiltzen dela ematen duena. Sinpletasunak, eguneroko objektu eta eszenek erakartzen zuten artista; horiek marra eta erritmo bihurtzen zituen. Haren lanen bidez erakutsi zigun Callahanek argazkiek ere irudi figuratiborik jaso gabe emozioak iradoki eta istorioak konta ditzaketela. Ezaugarri plastikoak direla eta oso erakargarria den errealtate zati bat aukeratu zuen artistak *Eguzkiaren isla uretan* obran —eguzki-izpien isla uretan— eta testuingururik gabe jaso zuen; horrek irudiaren interpretazioa zailtzen du. Horrelako konposizioak **Espressionismo Abstraktuaren** barruan zeuden margolarien koadroen antzekoak dira. Biek ere, pintoreek eta Callahanek, beste modu batean begiratzen zioten errealtateari eta beste modu batean jasotzen zuten. Callahanek — Pollockek eta besteek bezala— natura marra eta kolore-eremu sinple eta poetikoetara murrizten zuen, Espressionismo Abstraktuaren ideiez baliatu zen beraz. Pintura eta argazkilaritzaren sinergia bat gertatu zen abstrakziorako bidean.

## Ikasleentzako galderak

Arretaz aztertu argazkia, izenburuari begiratu baino lehen. Zer ezaugarri nabarmenduko zenituzke? Zer jaso du argazkian artistak, zure ustez? Egizu bururatzen zaizkizun gauzen zerrenda bat.

Callahanek naturako irudien abstrakzioak egiten zituen argazkietan. Irakurri artelanaren titulua; artelanari begiratzeko modua aldatu du argazkian dagoena zer den jakiteak? Zer antzekotasun eta zer ezberdintasun dago zuk imajinatutako gauzen eta artistak benetan argazkia atera zion horren artean? Zergatik aukeratu zuen Callahanek natura horrela irudikatzea? Eman zure iritzia.

Argazki batzuk egiteko negatiboa askotan ipintzen zuen argitan Callahanek. Horrela lortzen zuen bere eszenek muturreko kontrasteak edukitzea; batzuetan hondo ia guztiz beltza zuten argazkiok — *Eguzkiaren isla uretan* lanean bezala—. Zergatik aukeratu zuen horrelako argazkia egitea? Zer efektu lortu nahi zuen? Zein zen artistaren asmoa? Uste duzu asmo hori bete zuela? Zergatik? Koloretakoa balitz, zertan litzateke desberdina? Erregela batez marraztu folio batean argazkiaren tamainako laukizuzen bat: 11,1 cm luze eta 8,3 cm zabal. Nola aldatuko litzateke hamar aldiz handiagoa balitz? Zer eragin du artelanaren tamainak hura ikusteko eta ulertzeko orduan?

# GUGGENHEIM BILBAO

## **Ikasleentzako jarduerak**

Idatzi ipuin bat

Imajinatu *Eguzkiaren isla uretan* argazkia egin zen tokia. Laku bat, ibai bat, igerileku bat, itsasoa, ur andel bat... zer da, zure ustez? Nolakoa da ingurunea? Zer ikusi, entzun, usaindu eta sentituko zenuke leku horretan? Zer ordu da? Uretan bainatuko zinen? Idatzi ipuin fantastiko bat, Callahanen argazkia kokaleku nagusitzat hartuz.

Bizitza argazkitan

Callahanen lana eta bizitza estuki lotuta zeuden. Hamabost urtez emazte Eleanorri argazkiak atera zizkion, kokaleku eta testuinguru askotan: etxean, hiriko kaleetan, paisaian; bakarrik, alabarekin; zuri-beltzean, koloretan; biluzik, jantzita; gertutik, urrunetik. Ikaskide batekin egizu argazki-multzo bat; batak besteari atera behar dizkio argazkiak. Telefono bateko kamera zein kamera digital bat erabil dezakezue. Hasi baino lehen adostu zein atzealde, argiztapen, pose, filtro eta fokuratze erabiliko dituzuen. Egin 20 argazki gutxienez, bakoitzak. Inprimatu eta aztertu emaitzak. Zer argazki duzu gogokoen, zuk egindakoen artean? Eta zu agertzen zarenen artean? Zergatik? Beste modu batean ikusten duzu zure ikaskidea proiektu hau elkarrekin gauzatu ondoren?

Naturaren abstrakzioa

Callahan Espresionismo Abstraktuaren barruan dagoen argazkilari gutxienetako bat izan zen. 1940ko hamarkadan egin zituen naturaren argazki abstraktuak Jackson Pollocken margolanekin lotu dituzte maiz. Bilatu pintorearen artelan baten bat eta alderatu Callahanen *Eguzkiaren isla uretan* argazkiarekin. Zer antzekotasun eta zer ezberdintasun dago? Argazki kamera zein sakelako batez saiatu naturaren irudi abstraktuak egiten. Aukeratu gogokoen duzuna eta hura sortzeko prozesua idatzi. Erakutsi ikaskideei eta galdetu zeri atera diozun argazkia asmatzeko gai diren.

## **Oharrak**

1. <http://www.nytimes.com/1999/03/18/arts/harry-callahan-cool-master-of-the-commonplace-dies-at-86.html>
2. <https://www.questia.com/magazine/1G1-18183117/innovative-photographer-strove-to-see-it-different>

## **Hiztegia**

**Espresionismo Abstraktua:** AEBn Bigarren Mundu Gerraren amaieran sortutako arte-mugimendua. Joera horietako egileen lanetan emozioen bat-bateko adierazpena ikus daiteke eta ez dago errealitate fisikoaren irudikapen ez aipamen zuzenik.

## **Links**

<http://www.pacemacgill.com/biography.php?artist=Harry%20Callahan>

<https://www.lensculture.com/articles/harry-callahan-harry-callahan-the-photographer-at-work#slide-8>

# GUGGENHEIM BILBAO

<http://www.tate.org.uk/context-comment/video/tateshots-harry-callahan>

<http://www.nytimes.com/1999/03/18/arts/harry-callahan-cool-master-of-the-commonplace-dies-at-86.html>

<https://www.questia.com/magazine/1G1-18183117/innovative-photographer-strove-to-see-it-different>

<http://www.marcelwynfineart.com/site/wp-content/uploads/2016/10/Harry-Callahan-2012-Press-Release-1.pdf>